

Probintziako Subjektu Apostolikoaren Bigarren Topaketak

Loiolan, 2006ko otsailaren 17 eta 18an

2006ko otsailaren 17 eta 18an Loiolan **117 pertsona** elkartu ginen, 39 jesuita eta 78 laiko, probintziako subjektu apostolikoaren bigarren topaketan parte hartzera. Obra desberdinek, aldez aurreko prestaketa egin zuten, partehartzea eta subjektu apostolikoan pertsona kopuru handiagoa sartzeari errazteko, bertan parte hartzera gonbidaturik baikaude guztiok.

Topaketa otoitzaldi batekin hasi zen eta Probintzia-buruaren sarrerako hitzek fedejustizia erronkan elkarrekin sakontzera animatu gintuen, pertsona eta erakunde mailako gure errealitateetatik ekarpenak eginez. Garatzen ari garen Probintziaren Proiektuan inplikatzeko gonbidapen garbia izan zen.

Topaketak bi zati izan zituen:

- a) Ostiral arratsaldeko gaia **fedejustizia erronka gaur, Lagundian** izan zen. Fernando Francok, sj¹, aurkeztu zuen, erronka honen bizipen historikoa eta gaurkoa, Lagundi osoaren baitan, eta sail desberdinetako ordezkariak Probintzian dagoen esperientzia azaldu zuten, obra desberdinetako alde aurreko lanen bidez. Gaiari buruz elkarrizkatzeko eta galdetzeko aukera izan genuen. Arratsalde amaieran eukaristia ospatu genuen, bidean elkarrekin eta besteekin batera sentituz. Probintzia irudi bidez presente egin genuen eta sektore bakoitzak bidean jarraitzeko behar duen hura eskatu zuen. Afalondoko tertulian Angel Amigok behartsuenekin bizi diren jesuiten irudiak erakutsi zizkigun.
- b) Larunbat goizean injustiziaren ondorioetako baten inguruko gogoeta egin genuen: **migrazioen fenomeno**. Gaia kokatzeko, Martin Iriberrri, sj² ostiraleko azalpenetik eta gure Probintzian inmigratioak duen errealitateetik abiatu zen. Oso interesgarria izan zen Joaquín García Rocaren³ hitzaldia pertsona inmigranteen baztertzeko mekanismo eta barne-hartze praktiken inguruan. Banakako otoitzerako eta taldeetan (17 talde) partekatzeko tarte bat hartu genuen.

Esker-emate otoitzarekin amaitu genuen topaketa, bertan zenbait idazkarik taldeetako lanen zenbait arrasto azaldu zituztelarik. Probintzia-buruaren hitz batzuk eta Mariaren kantuak eman zioten amaiera topaketari.

Giroa oso atsegina eta hurbila izan zen, nahiz eta zenbaitek harreman informalerako denbora gehiagoren hutsunea sentitu. Ebaluazioetan ikusiko duzue, ahaleginak merezi izan du; taldea interpelatua eta animatua sentitu da, bidean eta lanean jarraitzeko.

Laburpen honetan aurkituko dituzu:

1. Larunbat goizeko taldeen ekarpenak.
2. Ebaluazioetako azpimarragarrienak.

Mila esker parte hartu duzuen guztioi!

¹ Erromako Justizia Sozialeko Idazkaria

² Loiolaetxea, Loiolako Probintziaren Sozial Arloa

³ Inmigranteen integrazio sozial eta prestakuntzarako Ikasketa Zentroa (www.ceim.net). Valentzia.

Taldeek ekarpenak

Tarte bat hartu genuen ostiral arratsaldean bizi izandako eta entzundako guztiagatik interpelatuak izaten uzteko. Hiru galdera izan ziren partekatzea gidatzeko:

Maila **personalean** sentitzen dugun eragina:

- Inmigrazioaren fenomenoaren aurrean **gure begirada aldatzeko**, gure aurreiritzietatik askatzeko eta bakoitzaren baztertze mekanismoetan sakontzeko.
- Pertsona inmigrante eta hauen elkarrekin harremana gure bizitzan integratu **errealitatea ezagutu eta hartaz jabetzeko** leku pribilegiatu gisa. Pertsonalki eta komunitate mailan laguntza eman.
- Gure lanaren eta familia bizitzaren eguneroko martxan, pertsonen eta hauen kulturenganako **errespetua eta tolerantzia** balioetan sentiberatu, informatu eta hezi. Gure lankideekin bizi izan duguna partekatu.
- Gogoeta egin, gizarte barne-hartzailea eta hiritargo globala lagunduko duten aukerak bilatu eta **erabakiak hartzeko (salaketa / ekintza)**.
- **Pertsona, kultura eta erlijio** guztietan **Jainkoa** presente dagoela aitortu eta erlijio-artearen elkarrekin geure buruak prestatu.

Jainkoagandik datozen **gure obrarako** aukera eta konpromisoaren inguruan gogoeta egin:

- Gure obrak iritzia eta hiritartasunaren eragile dira eta beren aitzindari papera berreskuratu beharra daukagu. Tokia eskaini behar diogu: sentiberatasunari, errealitate hori ikusarazteari; **gogoeta, pentsamendua eta eztabaida soziala eragiteari**; aniztasun kulturala eta erlijiosoa aberastasun gisa onartzeko **jarrerak sustatzeari**.
- Gure egiten jakitean sakondu, egiten duguna ongi egin, errealitate honi **erakunde mailan** aurre egiteko erak **diszernitu**:
 - obretan gogoetarako tarteak eskainiz,
 - lehentasun hau gure plan estrategikoetan barneratuz,
 - gure laguntzaileei prestakuntza-esperientzia emanez,
 - pertsona guztiei berdintasunezko tratua emanez,
 - inmigranteak obretan edo hauek ematen dituzten zerbitzuetan sartzeko prozesuak egituratuz,
 - gure lan prozesuetan tolerantzia eta kultura arteketasuna barneratuz....
- **Topaketa eta bilera guneak** sortu, obren artean eta pertsona inmigranteekin (instalakuntzak utziz, boluntario lanak eginez, hemen eta beren jatorrizko herrietan proiektuak elkarrekin eginez...). Beren herri eta kulturen **ezagutzan** sakondu.

Pertsonalki nahiz erakunde mailan beharrezko bihotz berritzea gertatzeko konpromiso edo aukera batzuk aitortzen ditugu **Probintzian**:

- Obra eta sektoreen arteko **elkar ezagutzen** sakondu, diszernitzeko eta sektore artean lan egiteko. Barne-komunikazioa indartu eta egiten ari denaren informazioa eman.
- Probintziaren **lidergoa** (nora goazen eta zertara), indarrean dagoen ereduari alternatiba bat sortzeko :
 - **Diszernimendu** bizi hau obretan, komunitateetan eta Probintzian mantenduz lana zehazteko.
 - Gogoeta garaian eta praktikan jartzeko orduan obrei, **baliabideak**, prestakuntza, laguntza eta aholkuak emanaz
 - Proposamen eta ekintzak **egituratu eta koordinatuz**, sektore eta obra bakoitzetik ekarpen espezifikoak eginez. Zehaztasunerako urratsak eman.
 - Egiten dena eta proiektu berriak **ebalatu**, beren garrantzia sozialaren arabera eta emandako irizpideak erabiliz (pertsonaren duintasunari errespetua izan, harreman barne-hartzaileak sortu, harremanak barrutik sendatu eta eraldatu, eta sinergian aritu).
- **Sareko lana** sustatu:
 - Probintziaren barruan, sektorean eta sektore artean, eguneroko martxari aurre egiteko eta inplikatzeko era berriak bilatzeko,
 - beste erakunde batzuekin (Lagundiarenak, udalak, tokiko eliza, elkarteak...) gizarte berri baten eta integrazio sozialerako beste eredu baten zerbitzuan itunak sortzeko.
- Egunerokotasunean erlijio-arteko elkarrizketa guneak **sortu**.

Bihotz-berritze pertsonala eta instituzionala
Integratzea
Elkar ezagutza, topaketa
Errespetua eta tolerantzia
Duintasun pertsonala eta Jainkoaren seme gisa
Fede-kultura elkarrizketa
Erljio-arteko elkarrizketa
Kultura artekotasuna
Prestakuntza
Gogoeta, elkarren arteko diszernimendua
Konpromisoa, ekintza zehatzak
Sareko lana
Ebalazioa
Eredu alternatiboa

Topaketaren ebaluazioa

Ebaluazioen **99 inkesta**⁴ jaso genituen, ondorengo emaitzekin:

- Topaketaren antolaketa: 9,27
- Arratsaldeko dinamika: 8,65
- Goizeko dinamika: 9,25
- Topaketaren balorazio orokorra: 9,25

Eskatu zen balorazioa 0-tik 4ra izan bazen ere, emaitzak 10en arabera aterata daude.

Balorazioaren osagarri gisa eskatu genuen adieraz zezatela “**topaketaren fruitu bat, etxera daramadan zer bait**”. Hara hemen sintesi modura:

- Gure bidean ez goazela bakarrik sentitzen dugu, elkarrekin lan egin eta **ignaziotar gorputz** gisa diszernitzen duena eta ekintzan elkartuta sentitzen dena, hazi behar dugula, gizartearen erronkei erantzun ahal izateko. Proiektu zabalago baten partaide sentitzen gara.
- Topaketak **beste sentiberatasun bat eta denona** laguntzen du injustizia eta inmigrazioaren errealitatearen aurrean, gure eguneroko lanerako bultzada da. Errealitatera hurbiltzea landu eta aurkitzen goazena partekatu nahi dugu.
- Errealitatera hurbiltzeak, Probintziak fede-justizia erronka bizi nahi duela sentiarazten digu, **errealitatearekin konprometitu** nahi duela. Gure obra guztiak eta beren langileak (jesuita eta laikoak) gonbidaturik gaude berorretan lan egitera.
- Bilatu egin nahi dugu, erabakietan asmatu, sumatzen ditugun aukerak eta konpromisoak gauzatu ahal izateko. Etengabe **zer garen eta zer egiten dugun berriro planteatzea** nahi dugu.
- **Jainkoa gurekin dago**, bide-lagun dugu.
- Egun honetan partekatu dugunak **itxaropena, ilusioa, alaitasuna, baikortasuna, indarra eta bakea** sentiarazten digu.

Probintziaren ibilbide honetan jarraitzeko **iradokizunen** bat eskatu genuen:

- Topaketa, obratan lanean ari diren **pertsona gehiagori zabaltzea** eta topaketako gaiarekin zerikusia duten inmigrante eta pertsonak gonbidatzea. Seriotasuna prestaketa garaian eta topaketa osoan bertan izatea.
- **Dinamikari** dagokionez: ordutegia zabaldu edo arindu, obren azalpenaren denbora eta edukiak mugatu, otoitzerako denbora gehiago, taldeak eta gerorako lan proposamenen egituraketa.
- **Edukiei** dagokienez: gaiari jarraipena eman egindakoa ebaluatuz, norabide ez hain teorikoa eman. Beste gai posibleak: erlijio-arteak elkarriketa, sinestun eta ez sinestunok bidea elkarrekin egin, baketzea eta adiskidetzea.
- Topaketa honetatik **mantendu**: gai nagusia, alde aurreko prestaketa obratan langileak inplikatu eta gogoetarako osagaiak ekar ditzaketen hizlarien partehartzea.

Taldeek ekarpenetatik eta ebaluaziotik sumatzen da, etorkizunean, Probintziaren lidergoarekin proposamenak eta ekintzak **zehazteko eta egituratzeko nahi bat**. Topaketak horretarako bide izan daitezke.

⁴ Pertsona talde batek aurrez alde egin behar izan zuen. Topaketaren antolakuntzak ere ez zuen ebaluaziorik egin.